

INFORMAZIO OHARRA

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuak marraztu du bere egitaraua

Elkartzen Gaituena lelopean urrian izango den Kongresuan gizarte berrikuntzan, lanaren antolaketan, humanitate teknologietan eta demokrazia parte hartzailean nazioarte mailako adituek emango dituzte hitzaldi markoak

Gasteiz, 2024ko uztailak 4. 2024ko urriaren 2, 3 eta 4an, Gasteizko Europa Biltzar Jauregian, Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresua ospatuko da.

Bere leloak adierazten duen bezala, *Elkartzen Gaituena*, Kongresuak Herri Itun baterako baldintzak sortu nahi ditu, Euskal Herriko gizarte eta lurralde kohesioaren alde abian jarri behar diren politiken edota erabakien inguruan. Gaitasun kolektiboak piztuz, adostasun zabalak lortzea eta eremu sozio-ekonomikoan, sozialean eta lurraldekoan proposamen zehatzak egitea bilatuko dute.

Eusko Ikaskuntzaren XIX. Kongresuan Euskal Herriaren kohesioa indartzeko lan egiten dutenek edo konpromisoa sentitzen dutenek parte har dezakete: herritarrek, aditu-arituek, gizarte-eragileek, erakundeetako ordezkariak eta akademikoak.

Lehenengo egunean, urriaren 2an, eredu sozio-ekonomikoari eta ongizatearen gizarteari helduko zaio. **Hilary Cottam**, Londresko University Collegeko Berrikuntza eta Asmo Publikoko Institutuko irakaslea eta *Radical Help* (2018) liburuaren egilea, izango da irekierahitzaldiaren arduraduna. Gizarte-programen berrikuntzan erreferentea, gizarte-laguntzaren inguruko narratiba eta praktika nazionalak aldatzeagatik aitortua izan da. 2019an Britainiar Inperioaren Ordena jaso zuen Ongizate estatuari egindako ekarpenengatik.

Egun horretan bertan, **M^a Ángeles Durán** Zientzia Politiko eta Ekonomikoetan doktoreak, CSICEko ikerketa irakasleak eta NBEko kolaboratzaileak ere parte hartuko du. Espainian Soziologia katedra lortu zuen lehen emakumea izan zen. Hirurehun lan baino gehiago

argitaratu ditu hainbat gairi buruz: ordaindutako eta ordaindu gabeko lana, denboraren erabilera, desberdintasuna, hirigintza eta osasuna. Gizarte, Ekonomia eta Lege Zientzietarako Ikerketa Sari Nazionala eta Soziologia eta Zientzia Politikoaren Sari Nazionala eskuratu ditu.

Eguneko egitaraua osatuko du Andoni Eizagirre Eizagirreren (Mondragon Unibertsitatea) aurkezpenak eta hiru mahai-inguruk. Horietako lehenengoan eredu sozioekonomiko orekatu eta justua erdiesteko trantsizioa izango dute hizpide Alberto Ansuategik (Eusko Jaurlaritza), Edurne Magro Monterok (Orkestra) eta Teofilo Rojo Apariciok (EHU), Jon Barrutiak moderatuta. Bigarren mahai-inguruan, *lanaren etorkizunari eta ongizate politikei* helduko diote Rafael Bustillok (Salamanca Unibertsitatea), Leire Gartziak (Deusto Business School) eta Tomas Arrieta Herasek, Izaskun Goñi Razquin moderazio lanetan delarik. Hirugarren mahai-inguruak *iraunkortasuna eta belaunaldien arteko elkartasuna* landuko du Itziar Aguado Moralejo (UPV/EHU), Javier Burón Cuadrado (NASUVINSA) eta Concepción Patxot (Universitat de Barcelona) partaideei esker, Mercedes Oleaga Páramok moderatzaile izanik.

Urriaren 3ko saioa Salamancako Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Ikasketen Institutuko **Lola S. Almendros**-ek irekiko du. Logikan eta Zientziaren Filosofian doktorea da, eta bere ikerketek informazioaren eta komunikazioaren teknologiek eta adimen artifizialarekin lotutako arazo epistemiko eta soziopolitikoak dituzte aztergai. Javier Echeverriarekin batera, *Tecnoexistir: Tecnopersonas. Cómo las tecnologías nos transforman* (2021) liburuaren egilea da.

Ondoren, Eusko Ikaskuntzaren baitan azken urteetan 4 programen inguruan landu diren ondorioak eta proposamenak aurkeztuko dituzten arduradunek eta talde eragileetako kideek: *Euskal nortasuna(k) XXI. mendera begira: 2050 helburu; Euskal Hezkuntza Sistema; Kultur eskubideak, parte-hartzea eta gobernantzarako politikak; eta GizarteLAB - Gizarte berrikuntzarako laborategia*. Saioa Kukai Dantza Taldearen hausnarketa sortzailearekin osatuko da.

Lurraldea, bere oreka eta haren gatazkak, izango dira hirugarren eta azken egunean, urriaren 4an, hausnarketarako gaiak. Hitzaldi markoa **Cristina Lafont**-en esku egongo da. Lafont Filosofian doktorea da Frankfurteko Unibertsitatean, eta Lebowitz for Philosophical

Achievement and Contribution saria jaso zuen 2022an, Amerikako Filosofia Elkarteak emanda. Egun, Northwesterneko Unibertsitateko (Ameriketako Estatu Batuak) katedraduna da. Besteak beste, *Democracia sin atajos. Una concepción participativa de la democracia deliberativa* liburua argitaratu du (2021), *Global Governance and Human Rights* (2021) edo *Lenguaje y Apertura del Mundo* (1997).

Eusko Ikaskuntzaren beste 3 lan-programen inguruan aurkezpenak eta mahai-inguruak antolatu dira: *Lurralde oreka - Herri Txikien Akademia*; *Lurralde burujabetza gatazken kudeaketa Europan*; *Euskal Herria lurralde bizia, muga lurraldea*.

Informazio gehiago: www.eusko-ikaskuntza.eus/XIX-kongresua.

NOTA INFORMATIVA

El XIX Congreso de Estudios Vascos perfila su programa

Especialistas internacionales en innovación social, organización del trabajo, humanidades tecnológicas y democracia participativa ofrecerán las ponencias marco del Congreso de Eusko Ikaskuntza previsto para el mes de octubre en torno al lema Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous unit

Vitoria-Gasteiz, 4 de julio de 2024. Los días 2, 3 y 4 de octubre de 2024 en el Palacio de Congresos Europa de Vitoria-Gasteiz se va a celebrar el XIX Congreso de Estudios Vascos organizado por Eusko Ikaskuntza.

Tal como expresa su lema, *Elkartzen Gaituena / Lo que nos une / Ce qui nous unit*, el Congreso aspira a crear las condiciones para un Contrato Social en torno a las políticas y/o a las decisiones que se han de poner en marcha en favor de la cohesión social y territorial de Euskal Herria. Activando las capacidades colectivas, se buscará alcanzar consensos amplios y elaborar propuestas concretas en los ámbitos socio-económico, social y territorial.

El XIX Congreso de Estudios Vascos está abierto a la participación de quienes trabajan o sienten el compromiso por el fortalecimiento de la cohesión de Euskal Herria: ciudadanía, especialistas, agentes sociales, representantes institucionales y personal académico.

La primera sesión, el 2 de octubre, estará dedicada al modelo socio-económico y la sociedad del bienestar. La conferencia de apertura correrá a cargo de **Hilary Cottam**, profesora en el Instituto de Innovación y Propósito Público del University College de Londres y autora del libro *Radical Help* (2018). Referente en la innovación de programas sociales, ha sido reconocida por haber cambiado las narrativas y prácticas nacionales en torno a la asistencia social. En 2019 recibió la Orden del Imperio Británico por sus contribuciones al estado de Bienestar.

Ese mismo día intervendrá también **M^a Ángeles Durán**, doctora en Ciencias Políticas y Económicas, profesora de investigación del CSIC y colaboradora de la ONU. Fue la primera mujer en obtener una cátedra

de Sociología en España. Ha publicado más de trescientas obras sobre trabajo remunerado y no remunerado, uso del tiempo, desigualdad, urbanismo y salud. Posee el Premio Nacional de Investigación para las Ciencias Sociales, Económicas y Jurídicas, y el Premio Nacional de Sociología y Ciencia Política.

El programa del día se completará con una exposición de Andoni Eizagirre Eizagirre (Mondragon Unibertsitatea) y tres mesas redondas. La primera mesa redonda, moderada por Jon Barrutia, se enfocará en las bases para una transición hacia un modelo socioeconómico justo y equitativo, y contará con la participación de Alberto Ansuategi (Gobierno Vasco), Edurne Magro Montero (Orkestra) y Teófilo Rojo Aparicio (UPV/ EHU). La segunda mesa redonda, moderada por Izaskun Goñi Razquin, tratará el *Futuro del trabajo y las políticas de bienestar*, con la intervención de Rafael Bustillo (Universidad de Salamanca), Leire Gartzia (Deusto Business School) y Tomás Arrieta Heras. La tercera mesa redonda, moderada por Mercedes Oleaga Páramo, se centrará en la *Sostenibilidad y la solidaridad intergeneracional*, con la participación de Itziar Aguado Moralejo (UPV/EHU), Javier Burón Cuadrado (NASUVINSA) y Concepción Patxot (Universitat de Barcelona).

La jornada del 3 de octubre la abrirá **Lola S. Almendros**, del Instituto de Estudios de la Ciencia y la Tecnología de la Universidad de Salamanca. Doctora en Lógica y Filosofía de la Ciencia, sus investigaciones se orientan a los problemas epistémicos y sociopolíticos asociados a las tecnologías de la información y la comunicación, así como la Inteligencia Artificial. Es autora, junto con Javier Echeverría, del libro *Tecnoexistir: Tecnopersonas. Cómo las tecnologías nos transforman* (2021).

Posteriormente, responsables e integrantes de los grupos de investigación presentarán las conclusiones y propuestas de cuatro programas de trabajo desarrollados en el seno de Eusko Ikaskuntza durante los últimos años: *Identidad(es) vasca(s) en el siglo XXI: objetivo 2050*; *Sistema Educativo Vasco*; *Derechos culturales, políticas de participación y gobernanza*; y *GizarteLab – Laboratorio de innovación social*. La sesión se completará con una reflexión creativa a cargo de Kukai Dantza Taldea.

El territorio, su equilibrio y sus conflictos, serán objeto de reflexión en el tercer y último día, 4 de octubre. La ponencia marco correrá a cargo

de **Cristina Lafont**, doctora en Filosofía por la Universidad de Fráncfort y Premio Lebowitz for Philosophical Achievement and Contribution otorgado en 2022 por la Asociación Americana de Filosofía. Actualmente es catedrática de la Universidad de Northwestern (Estados Unidos). Entre otros libros ha publicado *Democracia sin atajos. Una concepción participativa de la democracia deliberativa* (2021), *Global Governance and Human Rights* (2021) o *Lenguaje y Apertura del Mundo* (1997).

Otros tres programas de Eusko Ikaskuntza serán objeto de exposiciones y mesas redondas: *Equilibrio territorial – Academia de los Pueblos Pequeños*; *Gestión de conflictos de soberanía territorial en Europa*; y *Euskal Herria territorio vivo, territorio fronterizo*.

Más información: www.eusko-ikaskuntza.eus/XIX-kongresua.